

## GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA

### Sozietatearen izena

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza.

### IFK

Q2000559A

### Izaera

Partzuergoa.

### Kontabilitate-araubidea

Publikoa.

### Aurrekontu-araubidea

Mugatzailea.

### Sorrera

Partzuergoa 2011ko otsailaren 14an eratu zen eskritura publikoaren bitartez, partzuergo-izaerako erakunde juridiko-publiko gisa, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza SAREN aktibo eta pasiboen lagatze orokorraren ondorioz. EAEko Administrazio Orokorrak sozietate anonimoan zuen parte-hartzea onartu zen honako honen bitartez: [41/2007 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza, S.A." sozietate anonimoa sortzeko eta haren partizipazioak erosteko baimena emateari buruzkoa.](#)

2010eko irailaren 30ean, Partzuergoa eratu baino lehen, hasiera batean partzuergoko kide izan behar zuten erakunde guztiek «Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa-Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza» partzuergoa eratzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, eta hitzarmen hori argitaratu zen [Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmena argitaratzea ezartzen duen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren urriaren 18ko 74/2010 EBAZPENAREN](#) bidez.

### Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

### EJSN

7022 Enpresa-kudeaketako aholkularitzako bestelako jarduerak.

### Sozietatearen helburua

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza [Euskadiko Garraio Agintaritzaren abenduaren 15eko 5/2003 LEGEAK](#) araututako Garraioaren Lurralde Agintaritza gisa eratzen da bere lurralde-eremuan, eta, beraz, horren xedea eta helburuak honako hauek dira:

- Honako hauetan laguntzea: garraioaren antolamendu-politikak zehaztea, garraioaren baterako politikaren koordinazioa, garraio modalitateen plangintza, eta garraio-politikak lurralde-orekara —eta, oro har, garapen iraunkorrera— egokitzea, baita garraio-arloko erkidego-politikak ezarri eta egikaritzea ere.
- Garraioaren esparruan eskumenak dituzten erakunde guztiek ahal publikoak koordinatuta baliatzea sustatu eta erraztea, administrazioen arteko lankidetzaren bere gain hartzea, eta garraio-politiken esparruan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzen diren interesak bateratzea.

- c) Zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatu eta bultzatzea, baita erabiltzailearen esku eskaintza hobetzea jartzea ere, garraioaren erabilera bultzatu eta indartzeko azken helburuarekin.
- d) Garraio-sare bakarra eta integrala sustatzea.
- e) Garraio arrazionalagoa eta eraginkorragoa bultzatzea, garapen iraunkorraren gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arloko alderdien erabateko integrazioaren bitartez.
- f) Baliabide publiko eta pribatuak optimizatzea, garraio moten interoperabilitatea bultzatzeko, eta Europako garraio-sisteman sartzeko.

### Sailkapena kontabilitate nazionalan


Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

### Sozietatearen Funtsa

251.412 €

### Erakundeek 2012ko ekitaldian egindako ekarpenak

EAEko Administrazio Orokorra	% 45,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 45,00
Donostiako Udala	% 5,00
Irungo Udala	% 1,592
Errenteriako Udala	% 1,023
Beste Udalak (Eibar, Zarauz, Arrasate, Hernani)	%2,38



### Batzar Orokorra

Batzar Orokorra da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren gobernu-organo nagusia. Honako hauek dira, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egitean, Batzar Orokorreko kideak:

Antonio Aiz Salazar jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Javier Losa Ziganda jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Manuel Leza Olaizola jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Martín Barbarías Gómez jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Larraitx Ugarte Zubizarreta andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Unai Erroitzena Gamio jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Joseba Altube Moyua jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Iñaki Errazkin Vitoria jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Jon Albizu Agirrezabalaga jauna	Donostiako Udala.
Ernesto Gasto Gonzalo jauna	Donostiako Udala.
Cristina Laborda Albolea andrea	Irungo Udala.
Julen Mendoza Pérez jauna	Errenteriako Udala.
Mikel Goenaga Gubia jauna	Zarauzko Udala (*).
Juan Antonio Barriocanal Arrieta jauna	Arrasateko Udala (*).

Arcadio Benítez Dávila jauna                      Eibarko Udala (\*).  
Luis Intxauspe Arozamena jauna                Hernaniko Udala (\*).

(\*) *Partzuegoaren 13/04/18ko Batzar Orokorrean udal horiek sartzea onartu zen; 13/06/06ko Batzar Orokorrean, udal horiek izendatutako ordezkarien berri izan zen, eta 2012ko ekitaldiko urteko kontuak onartu ziren.*

## **2013ko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak**

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

## **2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak**

Aktiboa guztira	8.442.041€
Ondare garbia	3.638.396 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	460.276 €
Batez besteko langile-kopurua	6

## **Sozietatearen helbidea**

Easo kalea 74 (Easo plazako geltokia ETS) - 20006 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

## **Webgunea**

[www.atgipuzkoa.com](http://www.atgipuzkoa.com)